BEÑAT ETXEPARE

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA

SALA DE TEATRO PARA NIÑOS, NIÑAS Y JÓVENES

Temporada **2022 - 2023** *Denboraldia*

ETXERIK TXIKIENA

material pedagogikoa

ntolatzailea / Organizador *Babeslea* / Patrocinador *Dirulaguntzak* / Subvencionan

Teatro Paraiso Antzerkia

TEATRO ANTZOKIA PRINCIPAL VITORIA-GASTEIZ

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA

audaces Circuito Estatal de Artes Escénicas para Audiencias Escolares

Vital FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Laguntzaileak / Colaboran

EL CORREO PARTE DE TI ZURE BAITAN

eitb

Casa del Libro

teklak

Bazkidetza / Asociada a

BIARGI SAREA

adeste+

Co-funded by the Creative Europe Programme of the European Union

YARLEKU
ANTZERKIA · TEATRO

FITXA DIDAKTIKOA

1. Aurkezpena

"Etxerik Txikiena" errefuxiatu-eremu batean elkar ezagutzen duten bi neskatoren istorioa da. Batak bere etxera itzultzeko itxaropena mantentzen du baikortasunez eta besteak bizirauteko balio dion geruza bat eraiki du. Bien arteko harremana bizi dituzten inguruabarrei aurre egiteko lagungarri zaie, errealitatea onartzeak suposatzen duen helduarorako urratsa emanez; aldi berean, elkarrekin laguntasunean egoteak beren egoerak sorrarazten dien emozio andana osoa sentitzea ahalbidetuko die.

Azken finean, beste pertsona batzuen babesa, epeltasuna eta enpatia dira garapenerako ateak irekitzen dituzten giltzak. Norberaren etxea pertsona batek hazteko beharrezkoa zaion segurtasuna topatzeko lekua baldin bada, agian besarkada bat izan liteke etxe txikiena…

2. Zein adinetara zuzenduta dagoen

Antzezlan hau 6 urtetik aurrerako haurrentzat sortua izan da, izan ere, adin horretatik aurrera pentsamendu egozentrikoa gainditzen hasten dira: mundua norberarena ez den ikuspegitik begiratzeko gaitasuna garatuz doaz eta, horrenbestez, bestearen azalean ipin daitezke. Hori dela eta, errealitate beraren aurrean bi pertsonaiek dituzten erreakzioen lekuko izateak gatazka beraren inguruan bi ikuspegi aztertzeko aukera ematen die, bi aukera ezberdinekin enpatia sentituz. Horrez gain, beren sozializazio-prozesuan zehar barneratuz joan diren balioak praktikan ipintzen hasten dira: zorigaiztoen aurreko estrategiak, adibide batera, ikasi dituzten munduan gauzatzen hasten dira. Ildo horretatik, egoera berari aurre egiteko ezagutzen dutenaz aparteko moduak daudela ikustea aberasgarria da.

Haurrak inguruan duten munduarekiko interes gehiago azaltzen hasten dira; informazio askoren eraginpean daudenez, ekidinezina da gerrei, horien ondoriozko migrazioei eta errefuxiatu-eremuei buruzko albisteak haiengana iristea. Lan honetan sentsazionalismoa alde batera uzten da, eta haren ordez, gaiarekiko hurbilketa sentibera proposatzen da. Horretarako, haurrengandik hurbil kokatzen diren erreferenteak erabiltzen dira, esate baterako, etxea, errutinak, laguntasuna eta jolasak. Hala, ezagutzen dituzten errealitateetatik abiatuz, ulertzen zailagoak zaizkien eta urrunagokoak diren inguruabarretara hurbil daitezen. Gai hau jorratzeko moduak, beraz, haurrek adin horietan garatu ez duten pentsamendu abstraktua eskatzen duten datu anitzak saihesten ditu. Horren ordez, honako ikuspegia lantzen da: Zere gin dezake neskato batek beste baten alde inguruabar zailetan? Ikuspegi hau haurren ekiteko gaitasunetik hurbil kokatzen da, izan ere, laguntasuna sustraitze eta zainketa modu modura balioesteak egoera horretan izan daitezkeen beste adiskide batzuekin laguntasun hori azaltzea ekar dezake.

Aurrekoaren harira, antzezlanak berdinen arteko harremana balioan ipintzen du; faktore hori garrantzia hartuz doa, bilakaerari so, 6 urtetik aurrera. Haurrek, berdinen artean elkarrekintzan sartzen direnean, beren trebetasun eta gaitasunak ezagutzen dituzte pixkanaka, modu horretan autokontzeptua eta autoestimua garatuz. Antzezlanak bizikidetzatik islatzen du ikaskuntza hori. Horregatik, haurrek hurbilekoa zaien errealitate bat ikusiko dute eta bi neskatoek harremanak izateko dituzten moduak aztertu ahalko dituzte, beren esperientziarekin alderatuz.

3. Publiko hartzailearen bilakaeraren garapenera ondoen egokitzen diren elementuak

Hizkuntzaren sinpletasuna da antzezlana haurrengana hurbiltzeko elementuetako bat. Protagonista diren bi neskatoek ideia konplexuenak adierazteko hizkuntza xaloa erabiltzen dute. Bestalde, metaforen erabilerak publikoak interpretatzeko duen gaitasuna

ipintzen du deman, norberak bere buruari hitzez hitzeko esaldien atzean zer gordetzen den galdeginaraziz.

Pertsonaiek egiten dituzten jolasen bidez publikoarengan pertsonaiekiko enpatia sorrarazten da eta haien atzean azaleratzen diren gatazken ulermena errazten du horrek; haurrek ezagutzen dituzte jolasen arauak eta, beraz, intuitu dezakete zein diren pertsonaia horiek arauak irauli edo asmatzeko arrazoiak, ez jolastea erabakitzeko arrazoiak, etab.

Azkenik, antzezlana osatzen duten elementuek asko dute haurren imajinario unibertsaletik (eskola, amesgaiztoak, jolas egiteko desira, familiaren malenkonia, etab.). Beraz, publikoak berehala bat egiten du haiekin, pertsonaien munduan barna bidaiatu ahal izateko.

4. Gizonezkoen eta emakumezkoen rolak: Zein dira emakumeek interpretatzen dituzten paperak eta zein gizonek?

Eszenarioan 8-10 urte bitarteko bi neskatoen paperak interpretatzen dituzten bi aktoresa daude. Pertsonaia horiek ez dituzte femeninotasunaren kanon gailenak betetzen, izan ere, beren berezko bizimoduaren eragile aktiboak dira (ez dago haiek salbatzera datorren edo haien esperoan den gizonezko heroi bat), zenbaitetan indar fisikoa erabiltzen dute azaleratzen zaizkien inguruabarrak kudeatzeko, lehiakorrak dira, etab. Haatik, ez dira gizonezkoaren kanon tipiko bati jarraituz eraikitako pertsonaiak (hau da, ez dira izan normalean maskulinotasunari esleitzen zaizkion balioetatik abiatuz sortuak), aitzitik, beren emozioak aitortu eta kudeatzen dituzte, beren zaurgarritasuna agertzen dute, zaindu egiten dute elkar, etab. Beraz, ñabarduretan aberatsak diren fikzioko pertsonaien erreferentzia bat eskaintzen dute, sexua alde batera utzita, non neska-mutikoak elkar isla daitezkeen, modu horretan, beren burua irudikatzeko generoak inposatzen dien iragazkirik gabe.

5. Antzezlanean jorratzen diren publikoaren intereseko gaiak

-Harren bizimodua errefuxiatu-eremuetan: zalantza, esperoa, material aldetiko urritasuna, etab.

-Gerraren ondorioak: etxearen eta jatorrizko lekuaren suntsiketa, erbestea, familien banantzeak.

-Pertsona migratzaileen bidaia.

-Gatazka bat jorratzeko baliabide ezberdinak

-Kultura kode ezberdinak (idazketa, errituak, etab.).

-Berdinen arteko harremana ikaskuntzarako iturri modura.

-Jolasa norberaren esperientziak islatzeko eremu gisa.

-Dolua.

-Zailtasunen aurreko erresilientzia.

-Eskola-jazarpena.

-Kea aurkakotasunen aurreko baliabide modura.

-Etxearen esanahia.

-Ipuinek ikaskuntzarako duten balioa.

6. Helburuak

Antzezlana ikusi, ikuskizunera bertaratu eta ondoren egingo diren jarduera osagarrien aurretiko jarduerak barneratzen dituen unitate didaktiko honetan irakaskuntza arloko zenbait helburu proposatzen dira. Proposatutako jarduerak gehien azpimarratzea interesatzen diren helburuen arabera antolatu, birplanteatu edo hautatu daitezke. Honatx helburuak:

a) Errefuxiatu-eremuetan dauden haurren bizimodua ezagutaraztea.

b) Haurrei gerra, gatazka eta giza eskubideen urraketa (Siria, Palestina, etab.) pairatzen duten haurren errealitatea nahiz horrek guztiorrek dakartzan ondorioak hurbiltzea.

c) Haurrek garatzen dituzten bizirauteko moduak nahiz aurkakotasunei aurre egin eta horiek gainditzeko dauden modu ezberdinak ikustea.

d) Kultura ezberdinen arteko harremanari buruzko ikuspegi positibo bat erakustea (Bi neskatoak kultura ezberdinetatik datoz: idazteko modu ezberdinak, heriotzarena urreko erritu ezberdinak, etab.).

e) Elkartasunari, enpatiari eta pertsonen arteko babesari buruz gogoeta egitea, gero eta indibidualistagoa den mundu batean.

f) Bizikidetza eta elkarren arteko ikaskuntza balioan jartzea.

g) Etxe baten ezaugarriak aztertzea, haren ikuskera bikoitzean: oinarrizko premiak asetzen dituen espazio fisiko modura eta haurren garapena ahalbidetzen duen gune afektibo modura.

7. Jarduerak

Jarraian proposatutako jarduerak deskribatzen dira; era berean, bi fitxa atxikitzen dira, inprimatu egin daitezkeenak, ikasleek haiekin lan egin dezaten zuzenean.

7.1. Ikuskizuna ikusi aurretik

Irakasleek obraren testua ez dutela oinarritzat hartuta, antzezlana ikusi aurretik izenburua eta obrak zeharka ukitzen dituen zenbait gai aztertuko ditugu.

1. JARDUERA "ETXEA"

Talde handian lantzeko galderak.

**Zer behar du etxebizitza batek etxe bat izan dadin?* Bi alderdiak aipatu (espazio fisikoa eta espazio sinbolikoa) eta etxebizitza etxe izan dadin zer izan behar duen erabaki. Irakaslearentzako gida modura, Maslowen giza premien piramidea erabil daiteke, premia ezberdinen inguruko erreferentziak eskaintze aldera.

**Zein pertsonek osa dezakete etxe bat?*Hitz egin familia anitzei buruz, afektuen garrantziari buruz, etab.

**Zer suposatzen du zure etxea galtzeak? Eta zure herrialdea uzteak?* Osatu arbelean zerrenda bat.

**Zer irabazten duzu herrialde batetik bestera aldatzean? Eta etxe berri bat izatean?* Osatu beste zerrenda bat.



(https://es.wikipedia.org/wiki/Pir%C3%A1mide_de_Maslow)

2. JARDUERA – "ERREFUXIATUAK"

Pertsona errefuxiatuei buruz.

Sarritan ikusten dugu albisteetan badela bere etxea utzi eta beste herrialde batzuetara migratzen duen jendea Zer dakigu errefuxiatu-eremuen inguruan? Zerrenda bat egingo dugu talde txikitan ipinita, dakigunaren (albiste edota irudietan ikusi dugulako) eta suposatzen dugunaren (datu horietatik abiatuta irudikatzen ditugun gauzak) inguruan. Bi zerrendak bateratu egingo dira aurretiko ezagutzak erabakitzeko, eta baita datua keta iritziak bereizteko ere.

Bi zerrenda horiek osatzen lagungarri izan daitezke, era berean, galdera hauek:

Zergatik daude errefuxiatu-eremuak?

Zer-nolakoa da bizimodua bertan?

Nondik dator eremu horietan bizi den jendea?

Norantz joan nahi duela uste dugu eta zergatik?

Zer-nolakoa izan da haien bidaia?

3. JARDUERA – "HARRERA"

Harreraren dekalogoa: Talde txikitan, bi galdera hauen inguruan eztabaidatu:

**Beste herrialde batetik etorriko bazina zer gustatuko litzaizuke zuregatik egin dezatela etxean bezala senti zaitezen?*

**Zer egin dezakezu zuk beste herrialde batetik datorren pertsona bat etxean bezala senti dadin?*

Adierazi kartoi mehe batean talde guztiak adostutako ekintza edo jarrerak. Ondoren taldeen artean bateratu.

Horren ostean, dramatizatu bikoteka edo hirukoteka proposamenetako batzuk. Prestatzeko denbora labur bat ematen da eta ondoren talde guztiaren aurrean agertzen da. Bereziki baliagarria da agian haurrek maila abstraktuan ezagutzen dituzten baina kasu zehatzetan praktikan ipintzea kostatzen zaizkien kontzeptuak zehazteko garaian: Esate baterako, norbaitek "errespetuz tratatzea" proposatzen baldin badu, zertaz ari gara zehazki?

4. JARDUERA – "IZENBURA"

Izenburuaren inguruan solas egin

Aurretiko gaiak landu ostean, imajinatu kontakizun labur bat "Etxe txikiena" izenburupean. Aldez aurretik, taldea hiru azpitaldetan banatzen da: horietako batek kontakizuna lehen pertsona imajina beharko du, beste batek bigarren pertsonan eta besteak hirugarren pertsonan. Bateratu talde bakoitzaren kontakizun batzuk; zein sentsazio sorrarazten digu kontakizun mota bakoitzak?

7.2. Ikuskizuna ikusi ondoren

1. JARDUERA

Talde handian lantzeko galderak

*****_Zer gertatzen zaie Bettina eta Normari? Non daude? Non daude beren familiak? Zein zailtasun ditu dauden lekuak? Abantailaren bat ba al du?_

*****_Zertan laguntzen dio Normak Bettinari? Eta Bettinak Normari?_

*****_Zertan aldatzen da neskato bakoitza ikuskizunean zehar? Zein unetan gertatzen dira aldaketak?_

*****_Munduko zein lekutan gerta daiteke antzezlan hori? Zergatik?_

2. JARDUERA

Harreraren dekalogoa: (*bigarren zatia)*

Ikuskizuna ikusi aurretik sortutako harreraren dekalogoak berrikusi, agertzen al dira antzezlanean deskribatu dituzten ekintza edo jarrerak? Zein unetan? Baten bat gaineratu edo birformula dezakegu?

3. JARDUERA

“Etxean bezala”.

Ikasle bakoitzak, bakarka, bere izena kokatzen du folio baten erdian eta inguruan, nolabait, “etxean bezala” sentiarazten duten pertsona guztien izena ipintzen du. Ondoren binetetan, komiki bat bailitzan, pertsona horiekin ongi sentitzea zerk eragiten dion marrazten du.

*Dramatizaziorako aldaera: ikasle batek bere bineta bakoitzean zer gertatzen den deskribatzen du eta besteek deskribatutako eszena irudikatzen dute (adibidez: “Nire etxean bezala sentitzen naiz nire amonarekin, askaria ematen didalako” norbaitek amonaren papera egiten du eta beste norbaitek haurrarena)

4. JARDUERA

“Ikusi-makusi”.

Bikoteka ipinita, ikasle batek begiak ixten ditu eta besteak heldua denean bere etxea eta egun arrunt bat zer-nola irudikatzen dituen xuxurlatzen dio belarrira. Deskribatu inguruko pertsonak, janaria, azturak, planak, nahiak, etab. Bestea film bat bailitzan bistaratzen saiatu behar da. Ondoren rolak aldatuko dituzte.

5. JARDUERA

”Beste amaiera bat zilegi da”

Talde txikitan, antzezlanerako amaiera alternatibo bat asmatzea. Ondoren gainerako ikaskideen aurrean irudikatzen da. Pertsonaiak gainera daitezke, narratzaile bat sar daiteke, objektuekin jolas daiteke Bettinak bere istorioa maletarekin kontatzean egiten duen moduan, etab.

6. JARDUERA

“Hesia eta arrakala”

Gogoan izan “Etxe txikiena” antzezlanaren amaieran bi neskatoak aurrera egitea eragozten dien hesi baten aurrean geratzen direla: proposamen hori baliatuko dugu pertsona errefuxiatuekin lotuta bidezkoa eta bidegabekoa iruditzen zaigun hura erkatzeko ikusizko elementu modura.

Leihotxoak dituen mural bat eraikitzea da kontua, paper jarraituak gainjarriz. Goikoak taldean dagoen ikasle kopurua adina leiho izan behar ditu (kuter batekin moztuak gainjarrita bezala, ireki eta ixteko moduan). Papera horrek murrua irudikatzen du, eta hesi bat bailitzan estanpa daiteke. Leiho mugikorrean, ikusten den zatian, ikasle bakoitzak pertsona errefuxiatuen bizipenekin lotuta bidezkoa iruditzen ez zaien zerbait idatziko dute. Azpiko paper jarraituak aurrekorekin lotuta baikortasunez egindako proposamen bat izan behar du; marrazki bat gaineratzen baldin bada, are hobeto.

Bi paper jarraituak gainjarri egingo dira. Horrela, ikusten dituenak kanpoaldean bidegabekerien inguruan ikasleek emandako iritziak irakurriko ditu eta, leihoa irekitzean, aurrekoarekin lotutako proposamen bat aurkituko du.

ANTZERKIA · TEATRO

1. FITXA - AURRETIKOARDUERAK

1. Erantzun azpiko galderei egokitzat jotzen dituzun hitzak erabiliz. Nahi adina ipin ditzakezu. Ondoren, aipatu zure adiskidearekin zergatik hautatu dituzun hitz batzuk eta ez beste batzuk.

* Etxebizitza batean aukera dago...

* Etxean pertsonak sentitzen dira...

* Ezer falta ez den etxebizitza batean badira…

* Etxebizitza batean ez da behar…

Hormak, dantza egitea, askaria, lagunak, gurasoak anai-arrebak, landareak, oihu egitea, zartaginak, pistolak, mantak, burdin hesiak, besarkatzea, lo egitea, etxerako lanak egitea, sekretuak kontatzea, lasai, haserre, txakurrak, ohatzeak, bakarrik, umoretsu, coca-cola, ura, bainuontzia, lehengusu-lehengusinak, aitona-amonak, musika, lagunduta, ziazerbak, jotzea, musuak ematea, urtebetetzetako festak, igogailua.

2. Pentsatu zure etxetik joan egin behar duzula eta ez dakizula noiz itzuliko zaren… Izugarria, ezta? Fardela egitean, zein gauza berezi eramango zenituzke zurekin eta zergatik? Marraztu 7 objektu maleta baten barnean. Ondoren idatzi zergatik eramango zenituzkeen eta lotu testua eta marrazkiak gezi bidez.



ANTZERKIA · TEATRO

2. FITXA - ONDORENGO JARDUERAK

1. Gogoan duzu nola sentitu zaren antzezlaneko une ezberdinetan? Antzerkiak publikoarengan emozioak ernatzea bilatzen du. Saiatu zerbait sentitu duzun hiru une gogoratzen, azaldu noiz izan den eta zergatik.

a) Obran..... zenean..... sentitu dut, izan ere, ...

b) Obran..... zenean..... sentitu dut, izan ere, ...

c) Obran..... zenean..... sentitu dut, izan ere, ...

2. GUTUNA LAGUN BATI

Ziur baduzula harekin egoteko irrikaz egoten zaren lagunen bat. Idatzi iezaiozu gutun bat!

Gutunean, zuregatik zerbait egin zueneko hura gogorarazi behar diozu. Gainera, zerbait partekatzea proposa diezaiokezu (jolas bat, zure etxean lotan geratzea, askari bat). Amaitzen duzunean, berrikusi eta eman zure lagunari… Eta, noski, paregabea litzateke proposatzen diozun plana betetzea!

Adibidez:

Kaixo Ahmed:

Zer moduz zaude? Gogoan dut hondartzan itsas triku bat zapaldu nuenekoa, korrika joan zinen begiralearen bila eta ondoren sendatzen ninduten bitartean eskua eman zenidan. Zer-nolako sustoa jaso nuen! Eskerrak nirekin zeunden. Mila esker egun hartan nire alboan egoteagatik.

Asko gustatuko litzaidake egunen batean nire etxera etorri eta afaltzeko pizza bat egingo bagenu, aitak zainduko digu labea. Nahi duzu?

Zure lagunaren besarkada bat